Herri Aldizkaria

Gramoz

1999ko abendua 53. alea

ZENBAT BURU...
2000. urtea

Santa Lutziak 99

ELKARRIZKETAK
-Iker Alvarez
-Iñigo Pérez

IZERDI PATSETAN
Iñaki Aranzadi eta
Matías Sánchez

Hator, hator...

gabonetan ere presoak gogoan

ESKOLA PUBLIKOA
etorkizunerako aukera

2 urtetik 20 urte arteko kalitatezko eskaintza

GAINZURI
Ikastetxea

Tel.-faxa: 943 721214
e-mail: info.gainzuri@educanet. net
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

J.M. IPARRAGIRRE

J.M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
Tel.-faxa: 943 721403 - 721413
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

Hilabete honetako argazkia 1967an institutu zaharra inauguratu zenekoa da, orain Lizeoa dena. Argazkian poxpolinez jantziak ikusten diren neskak honakoak dira:
Goian: Mª Elena Aizpuru, Ana Mª Francés, Mertxe Zabala, Olatz Korta eta Mertxe Alustiza.
Beheko aldean: Mª Luisa Ormazabal, Mª Jesus Arranz, Nekane Ormazabal, Feli Núñez, Belén Rodríguez eta Mª Elena Busca.

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 Tirada:2.000 ale. **Edizio digitala:** http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202 **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

DOSTA ZUMARRAGA
Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Montajes e Instalaciones Electricas
HERCE
Elektrizitaten, M. E.
Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi ☎ 943 72 42 66
☎ Mugikorra: 919 442 617
20700 URRETXU

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA

Poesia eta narratibako Iparragirre sariak

Azaroa bukaeran 1999ko Iparragirre sarien sari banaketa izan zen Zumarragako Udaletxeko areto nagusian.

Aurtengo sarituen artean herritar bakarra izan da, Ane Korkostegi urretxuarra hain zuzen ere. Ane lizeoan batxilergoko 1. maila egiten ari da eta aurtengo edizioan narratiba sailean bigarren saria lortu du "Iraganaren deia" lanaz. Gure zorionik beroena berarentzat, eta jarrai dezala horrelaxe aurrerantzean ere.

Iparragirre sarien banaketan 1998ko edizioan saritutako lanak jasotzen dituzten bi liburu ere aurkeztu ziren. Lehen liburua Xabier Olaso Otxandioarraren "Datak eta postdatak" poesia bilduma da eta bigarrena, berriz, Jon Obesoren "La mirada del acuario", Susana Lópezen "Ausencia de madre" eta Silvia Colmeneroren "Hambre" ipuinek osatzen dute.

Liburu hauek bi udalek Berminghan argitaletxearen laguntzaz argitaratu dituzte saritutako lanak irakurleei ezagutzera emateko asmoz.

Ane Korkostegi, ezkerretik laugarrena, gainontzeko sarituekin.

Ikastolako Batzar Nagusia

Joan den azaroaren 18an Ikastolak urteko batzar nagusia egin zuen Pagoeta antzokian.

Batzarrari hasiera lehendakariak eman zion eta bere hitzen arabera, lana ondo egiten ari den sentsazioa somatzen da Ikastolan, aurrera begira orain dauden hutsuneak kontuan izan beharko diren arren; besteak beste, gurasoen partaidetza antolatzea, egitasmo pedagogikoak burutzea edota eraikuntzak berritzea.

98-99 ikasturteari dagokionez, zikloka hartuta, oro har, behar bezala gauzatu dira kurtso hasieran ezarritako helburuak: irakurketaren txokoa, euskara, ebaluazioa eta aniztasuna.

Ikasturteko dirukontuak aztertzerakoan, ekitaldia espero bezala joan dela azaldu zuen ekonomi arduradunak. Zortziehun mila pezeta pasatxoko irabaziak aurreko urteetako galerak konpentsatzeko erabiltzea erabaki zuen batzarrak.

Datozen lau urteetarako helburu estrategikoen eta kudeaketa planaren berri eman zuen ondoren zuzendaritza taldeak; kalitatea, curriculum propioa, administrazioa eta ekonomia, eta azkenik, komunikazioaren esparrua izango dira Ikastolan hobetu eta zaindu beharreko gaiak; hori guztia aurrera eramateko, ezinbestekoa izango omen da komisioen erantzukizuna.

1999-2000 ikasturteari aurre egiteko, batzar nagusiak 484 milioi t´erdiko aurrekontuari eman zion onespena.



Batzarkideek 484 milioi t'erdiko aurrekontua onestu zuten 1999-2000 ikasturterako.

Mapa Toponimikoaren aurkezpena

Jose Luis Ugarte

Jose Luis Ugartek eta Zintzo-Mintzok bi herriotako toponimoak bildu eta ezagutzera emateko burututako lanak emaitza berri bat ekarri du urte amaiera honetan. Urte hasieran "Urretxu eta Zumarragako Toponimia" liburua aurkeztu bazuten, hilaren 30ean, arratsaldeko 7etan eta Urretxuko udaletxeko Areto Nagusian bi herriotako toponimo ezberdinak biltzen dituen mapa aurkeztuko dute.

Toponimoak biltzen dituen koloredun mapa eta hauen toponimo ezberdinen aurkibideaz gain, kartelak bi herriotako toki esanguratsuenen kolorezko argazkiak ere jasotzen ditu.

Aurkezpen ekitaldian, Urretxu eta Zumarragako udalei, bi herriotako ikastetxe ezberdinei, euskaltegiei eta elkarteei kartelak banatzeaz gain; udaletako arduradunei toponimoak biltzen dituzten disketeak emango zaizkie beraien datu basean txerta ditzaten.

Dena den, aurkezpen ekitaldia herritarrei irekia izango da eta bi herriotako toponimoak eta mapa Gabon hauetarako opari polita direla uste baduzue, aurkezpen ekitaldira hurbiltzen zareten guztiok eskaintza berezia izango duzue. Dena den, mapa zein liburua Zintzo-Mintzoren egoitzan (Goierri elkartearen ondoan) eta herriko liburudenda ezberdinetan salgai izango dira.

Hona hemen liburua eta maparen salneurriak:

	Liburua	Mapa	Liburua+mapa
-Zintzo-Mintzoko bazkideentzat	2.000	500	2.000
-Ekitaldian bertan	2.000	1.000	2.000
-Dendetan	3.000	1.000	3.000

Etxebizitzen alokairua bultzatzeko plangintza

Urretxuko udalak Elena Arriaran teknikariaren laguntzaz herrian hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzea lortzeko plana martxan jarri du.

Azken 8 urteetan 700 etxebizitza inguru egin dira herrian eta berriak egiteko aukerak agortu diren arren, oraindik eskaria dago. Hau dela eta, udalak etxebizitza berriak eraikitzeko lursailak aurkitu beharra ikusten du.

Elena Arriaran teknikaria Pello González alkatearekin.

Baina eskariari aurre egiteko beste irtenbide bat, orain udalak aurrera atera nahi duena, alokairua bultzatzearena da. Egun Urretxun 375 etxebizitza hutsik daude eta gehienak ez daude alokairuan. Hau dela eta, udaletik etxebizitza hauek salmenta zein alokairuan jartzeko plangintza bultzatu da.

Plangintzaren ardura Elena Arriaranek hartu du eta hutsik dauden etxe hauetako jabeekin harremanetan jarriko da etxeak merkaturatzea lortzeko. Ados agertzen diren jabeen etxebizitzekin poltsa bat aterako da eta udalak etxea alokatu nahi dutenen eta jabeen arteko bitartekari lana egingo du. Honenbestez, udala bi alderdien arteko akordioaren betetzeaz ere arduratuko da.

Elena Arriaranek Areizaga, Gernikako Arbola eta San Martineko jabeekin hasi du bere lana eta ondoren herriko gainontzeko kaleei ekingo die. Elenak bisita egiten dienean jabeek fitxa bat bete beharko dute eta bertan euren datuak, etxebizitzarenak, alokairuan jartzeko prest dauden eta zenbat diru eskatzen duten zehaztu beharko dute.

MASTER HEZKOR
Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!
Prezio eta modeloetan aukera aparta
Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA

Varmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona
ARTURO
Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

KALE-KIROLAK
alejandro albisua
kirol gaiak
Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA

GUREA
Iturgintza
Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...
Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Ecuadorgo eskolaren alde egindako lanaren balorapena

Azaroko aleko Otamotzen Zumarragako denbora libreko eta sendotzako gazteek Ekuadorgo eskola bati laguntzeko antolatutako ekitaldien berri eman genizuen.

Helburu honekin Beloki pilotalekuan ospatu zen Elkartasun Gaura hurbildu zen jende ugariak ekitaldi ederraz gozatu ahal izan zuen. Joan zen igandean azaroa eta abenduan zehar zabalik izan den merkataritza libreko denda itxi zuten eta antolatzaileak oso gustura agertu dira emaitzekin.

Herritar askok denda honetan erosi dituzte Gabonetarako opari ezberdinak eta salmentak milioitik gorakoak izan dira. Diru honen portzentaia bat Ekuadorgo Salinas herriko eskolari laguntzeko zuzenduko da eta gainontzekoa produktu hauen ekoizpenean lan egiten dutenentzat izango da. Antolatzaileen esanetan, musika tresnak eta irudi apaingarriak izan dira, txokolate, kafe eta ronarekin batera, arrakasta gehien izan duten produktuak.

Zumarragako parrokiko aisialdi taldeko gazteak merkataritza libreko dendan.

Hala ere, Ecuadorgo eskolari laguntzeko, gazteek beraiek baino bizi baldintza okerragoak dituzten herrietako gazteen alde lan egin zezatela ere lortu nahi zen eta helburu hau goitik-behera lortu omen da. Arduradunen esanetan, sendotza zein aisialdiko gazteak oso gogo onez aritu dira lanean.

Etxe-Azpi: Bazkari goxoak eta afari bereziak

Jatetxe honetara astelehenetik ostiralera batezbeste ehun lagun joaten dira bazkaltzera, gehienak beraien lan egunean tarte bat eginez. Hainbeste sabel goseti asetzeko goizean goizetik bost sukaldari lanean aritzen dira hamabietan lehenengo bezeroak iristen direnerako dena prest egon dadin.

Afariak ostiral eta larunbatetan ematen dituzte eta egun seinalatuetan menu bereziak ere izaten dira (esate baterako Santa Lutzi egunean). Eguerdi partean eguneko menua bada ere gehien eskatzen dena, afarietarako plater bereziagoekin osatutako karta zabal bat ere badute. Gainera, karta hau euskaraz eta gazteleraz dute jatetxea zabaldu zenetik.

Urtean zehar aparteko platerak jan eta edari bereziak edateko sasoirik bada hau gabonetako garaia da. Beraz, ezinbestekoa iruditu zaigu sukaldari bati festa hauetarako menu berezi bat eskatzea. Lourdesek, nola ez, menu eder bat proposatu digu, eta ederra izateaz gain, sukaldaria ere kontuan hartu du. Menu honek arratsalde (edo goiz) guztia sukaldean pasa ondoren afalorduan (edo bazkaltzerakoan) sukaldariari esertzeko aukera emango baitio. Ea zer iruditzen zaizuen:

Marisko entsalada (cava on bate kin lagunduta)
Salda
Eperra ehiztari erara (ardo beltz ondu batekin lagunduta)
Sagar konpota eta turroiak

Marisko entsalada.
Osagaiak (bakoitzak nahi adina):

- Ganbak
- Langostinoak
- Txangurroa
- Buia
- Saltsa arrosa
- Piper gorriak
- Azenario bat

Ganbak, langostinoak, txangurroa eta buia egosi ondoren, haragia bereiztu. Haragi honi arrautza egosia, julianan moztutako letxuga, txaka eta saltsa arrosa gehitu eta dena ondo nahastu. Ondoren, ontzi batean jarri eta piper gorriekin, azenario raiatuarekin eta ganbekin dotoretu.

Eperra ehiztari erara.
Osagaiak:

- 4 eper
- Tipula bat
- 4 baratxuri
- Azenario erdi
- Kanela bat
- Porru txiki bat
- 4 oliba olio tazatxo
- Ardo ozpin tazatxo erdi
- Ardo beltz baso bat
- Perrexil piskat
- 8 ur tazatxo

Osagai hauek guztiak lapiko altu batean jarri eta lau ordutan su txikitan egiten egon behar dute.

Telefonoa: 943 72 51 65
Jantokia: 110 pertsonentzat.
Eguneko Menua: 950 pzta.

2000 efektua gure gainean

Jonmikel Intsausti

Egun hauetan, telebista zein irratietan 2000. efektuari buruz baino ez da hitz egiten. Eta zer da 2000. efektua? 2000. urtearen etorrerak Informazio Teknologiak (ordenadore eta sistema elektronikoz informazioa kudeatzen duen teknologiak) inoiz aurre egin izan dion erronka handiena dakar. Izan ere, 1999ko abenduaren 31k azken hatsa ematen duenean, ordenadore askok 1900, 1980 zein 1983 urteetara, edo 2000 ez den beste batera aldatuko dute beraien barne-dataren urtea. Honek datak erabiltzen dituzten aplikazio edo sistema askok kale egitea eragin dezake.

Baina zergatik sortu da 2000. efektu delako hori? Arrazoia ordenadoreetan urtea gordetzeko 2 digitu erabiltzean datza, eta ez 4 digituko zenbaki osoa. Horregatik, 1967ko abuztuaren 31, 1967/08/31 edo 67/08/31 bezala gorde daiteke. Biko digituko urtea bada, zein da urtea: 1967 ala 2067? 2000. urtera pasatzen garenean, 00/01/01 dataren esanahia zein izango da? 2000ko urtarrilaren 1a ala 1900ko urtarrilaren 1a? Hortxe dago gakoa, ordenadoreak gaizki interpreta dezake 00 hori, eta data-kalkuluak egiterakoan emaitza okerrak eman ditzake. Konponketa honen arrazoi bakarra, aurreko hamarkadetan dirua aurreztea izan zen: memoria garestia baitzen, eta milioika datuetan zehar, datek 2 digitu izatea 4 baino dirua aurrezarazten zuen. Eta gerora paradoxa batean erori gara, zeren eta aplikazio hauen eguneraketak inbertsio handiak ekarri behar izan ditu (espainiar estatuan orain arte 150.000 milioi pezeta gastatu baitira).

Eta noiz suma daiteke 2000 efektuaren eragina ordenadoreetan? Efektua orain hasita eta 2000. urte osoan zehar azal daiteke. Norengan izango duen eragina argi dago. Gu guztiok, guztiok diot —ordenadorerik ez duzuenok ere— jasan dezakegu 2000. efektuaren eragina. Eta zuetako bat baino gehiago arituko da esanez —*baina nik ez dut ordenadorerik, eta ez dut ordenadorerik erabiltzen...* eta orain hemen erantzuna... nola ateratzen dugu dirua bankuan... ordenadoreak erabiliz ez bada, nola deitzen dugu telefonoz... ordenadoreak erabiliz ez bada, nola erreserbatzen dugu Glasgow-erako hegaldia, nola programatzen dugu gure bideoa, nola kalkulatzen da gure nomina, nola ematen digu txartela autobus-gidariak, autopista bidesarilangileak edo tren-geltoki leihatilazainak, nola iristen zaizue ale hau etxera, aurretik ordenadore bat erabiliz ez bada... ekintza hauek guztiak ordenadoreak erabiliz ez bada. Honekin zera esan nahi dut, bada garaia denok jakin dezagun nolako dependentzia sortu izan dugun ordenadoreekiko. Ordenadore eta sistema elektroniko hauek guztiak 2000. efektutik salbu ez baleude, ezin izango genuke telefonoz deitu, bideoa programatu edo bankutik dirua atera. Norengan izango duen eragina? Egin kontu!

"2000. urtearen etorrerak Informazio teknologiak inoiz aurre egin izan dion erronka handiena dakar"

Baina ez gaitezen katastrofistak izan... era berean, badira igogailuek eta abarrek ez dutela funtzionatuko esaten dutenak... edo baita hau guztia muntaia komertzial erraldoia baino ez dela. Gailu bat elektroniko izateak ez du esan nahi funtzionatuko ez duenik; hala ere 2000. efektua kontuan hartu beharreko efektua dela argi dago.

Hori dela eta, enpresa zein erakunde handiak konpontze plan konplexuak burutzen ari dira 2000. urtean eragiketa guztiak ondo atera daitezen. Arazorik gabe beraz, kutxazain automatikotik dirua ateratzea, edo telefonoz deitu ahal izatea espero dut. Baina gu geu ordenadore erabiltzaileok gure ordenadoreak prestaturik ote dauden jakin behar dugu.

Egin beharreko eragiketak zailak zein errazak izan daitezke baldin eta zein ordenadorez mintzatzen garen. Eta ez naiz hemen sartuko zer egin behar den kasu bakoitzean, horretarako OTAMOTZ ale monografiko osoa idatzi behar izango baikenuke. Macintosh-a bada, aspaldidanik zure mac-a 2000. urteari aurre egiteko prestaturik dago. Soilik bertan dituzun aplikazioak prestaturik dituzun edo ez ikusi behar izango duzu. Zure ordenadorea PCa bada, ordenadore-dendariari zein teknikariari galde diezaiozun gomendatzen dizut. Edo bestela, ohikoena den Microsoft-eko sistema eragilea baduzu, Internet-eko http://www.microsoft.com/technet/year2k/pca/pca.htm web orritik zure sistemaren azterketak egingo duen aplikazioa dohainik jaitsi dezakezu. Hobe garaiz ibiltzea berandu baino: gero ez dadila otsoa etorri. A! eta urte amaiera baino lehen segurtasun kopia bat egitea ez litzaizuke gaizki etorriko. Eta ondoren ongi etorri lasaia eman diezaiogun bigarren milurteko azken urteari—eta ez hirugarren milurteko lehendabizikoari—. Hala da, baina kontu hori beste baterako utzi beharko dugu.

—Informazio gehiago Interneten—:

http://www.microsoft.com/year2000/
http://www.map.es
http://www.microsoft.com/technet/year2k/pca/pca.htm
http://www.hp.com/go/year2000
http://www.year2000.com

Jonmikel INTSAUSTI
OTAMOTZ aldizkariko informatikaria

2000. urtean ere txakurrak oinutsik?



Ramon Areizaga

Nire ustez esaten ari diren guztia gehiegizkoa da. Hala ere, baliteke 2000 efektua dela eta zer edo zer gertatzea. Ospitalean mantak ekarri dituztela entzun dut, berogailuek kale egiten badute arazoa konpontzeko. Ospakizunei dagokienez, ez dut ezer berezia egin behar.

Eli Ramos eta Junkal Hernández

Batzuek mundua bukatuko dela diote, baina gure ustez urte bat gehiago besterik ez da. Hala ere, 2000 efektuak ordenagailuetan eragina izango duela uste dugu. Urte berria ospatzeko sekulako juerga egingo dugu, baina ez 2000 urtea delako.

Rosario Ormazabal

Heldu arte ez dugu jakingo zer gertatuko den, baina nire ustez gainontzeko urteen modukoa izango da. Guk behintzat beti bezala ospatuko dugu. 2000 efektuari dagokionez, nire senarrak ordenadorearekin lan egiten du eta berak dioenez ez omen da aparteko ezer gertatuko.

Ioritz Zufiria eta Julen Verde

Gure ustez 2000. urtea urte bat gehiago besterik ez da. Euroa heltzen denean bai izango direla komeriak! Hala ere, gure ustez XXI. mendea 2001ean hasiko da.



BILINTX
LIBURUDENDA
EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.
-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224
Fax: 422363 20003 DONOSTIA
-Fermín Calbetón, 30
Telf. 422696 20003 DONOSTIA
-República Argentina, 4 Telf. 626817
Fax: 626817 20300 IRUN
-Arostegieta, z/g. Telf. 673533
Fax:673500 20400 TOLOSA
-Ibargarai, 12 Telf. 764050
Fax: 764050 20570 BERGARA

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
fundazioa
fundación

EDURNE
JANTZIDENDA
Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Mertxe Galdos Arsuaga
C.P. Mujeres
Apartado 796
Murcia



Gonzalo Rodriguez Cordero
C.P. Teixeiro
Carretera Paradelo
Curtis
A Coruña



Pili Gabirondo Hernaltez
C.P. Teixeiro
Carretera Paradelo
Curtis
A Coruña

Aurten ere Gabonak ezin ospatu

Gabonetako egun hauek askorentzat urtean zehar ikusten ez diren senide eta lagunekin etxeko berotasunean igarotzeko aproposak diren arren, euskal preso eta errefuxiatuen guraso eta lagunek gogoa etxetik hurrun dutela igaroko dituzte aurtengo Gabonak ere. Euren kezkak ezagutzeko gartzelan 14 urte eta guztira etxetik kanpo 21 daramatzan Mertxe Galdosen anaia eta koinatarekin, Inazio eta Asunekin, eta laguna izanik, eskualdeko preso ezberdinak bisitatzera sarritan joaten den M. Josune Begiristainekin, "Txata"rekin, hitz egin dugu. Mertxez gain, eskualdekoak diren Pili eta Gonzalo ere gartzelan aurkitzen dira eta ziur goialdean jarri ditugun helbideetara idatziz gero, Euskal Herritik pixka bat gertuago sentitzen lagunduko diezuela.

Egun Murtzian badago ere, nondiknora eraman dute Mertxe urte hauetan guztietan?

14 urte hauetako gehienak Madril, Castellón, Málaga eta Murciako gartzeletan eman ditu. Honetaz gain, batetik besterako trasladoetan ere beste hainbat espetxe ezagutu behar izan ditu. 3 urte egon zen Malagan bakar-bakarrik, senideekin soilik hitz egiteko aukera zuelarik, lagunen bisitak ez baitzituzten onartzen. Ondoko zeldetako preso komunekin soilik hitz egin zezakeen, baina hauek gartzelarien mehatxuak jasotzen zituzten berarekin harremana izanez gero. Gu bakarrik joan gintezkeenez, ia astero joaten ginen berarengana 10 minutu eskaxetan berarekin egoteko. Hainbeste urte ondoren, dispertsioaren ondorioz, oraindik ere isolatuta jarraitzen du. Euskal presoei lehen gradua jartzen diete eta ez da berrikusten, eta legezkoa dela dioten honen bitartez euskal presoak isolaturik edukitzen dituzte. Emakumezkoen kasuan, gainera, hau aurrera eramatea are errazagoa zaie, neska gutxiago baitaude.

> **"Malagako gartzelan hiru urtetan erabateko isolamenduan egon zen"**

Zer nolako harremanak ditu preso sozialekin?

Orokorrean harreman ona dute eta konfidantza pixka bat hartzen dutenean oso lagun onak egiten dira. Nahiz eta askotan mehatxuak eta zigorrak jasotzen dituzten gure presoekin hitz egiteagatik edo beraiei laguntzeagatik. Normalean hasieran preso komunek euskal presoekiko mesfidantza izaten dute, baina pixka bat ezagutu ondoren beraiek bezalako pertsonak direla jabetzen dira. Gainera preso sozial gehienek ikasketa maila baxuak dituzte eta gure presoek asko laguntzen diete.

Zenbatero duzue berarengana joateko aukera?

Astero joateko aukera dugu. Lehen, senideen bisitaldia soilik izateko aukera zuen, baina orain lagunak ere joaten zaizkio eta ia astero norbaiten bisita jasotzen du. Gu normalean hilean behin joaten gara, vis-a dugunean. Murtziaraino joan beharra dago eta gainera asteburuko bisita lortzea oso zaila da. Lehenengo preso sozialei uzten diete bisita eguna aukeratzen eta honela euskal presoei, askotan etxetik urrunen daudenei, bisitaldiak astean tokatzea lortzen dute.

Zer nolako tratua erakusten dute zuenganako?

Anekdota pilo bat daude oztopo hauen inguruan. Madrilera joan eta bisitarik egin gabe itzuli beharra... trasladuan zegoela esan ziguten, ez genuen sinetsi, baina zuzendariarekin ez dago sekula hitz egiterik... eta gizarte-laguntzaileak ere gauza bera esan zigun. Mertxeren beraren bidez jakin genuen egun hartan bertan zegoela. Nik neuk (Asun) epaiketa izan

nuen egin nizkien ustezko mehatxu batzuk zirela eta. Euskal presoei bisitaldia egitera joaten garenok, preso sozialei bisita egitera doazenekin alderatuz tratu ezberdina jasotzen dugula. Guri sarreran karneta eskatzen digute, familia liburua eraman behar dugu senideak garela justifikatzeko, lagunak garela erakusten duten instantziak bidean galtzen dituzte... Edozein agiri etxean ahaztuz gero, bidaia alferrikakoa da. Hala ere, Murtzian, Malagan aldean askoz ere tratu normalagoa izaten da. Dena den, gehienetan edozertarako oztopoak jartzen saiatzen dira: nahiz eta baimena eskuartean izan, ez dugula bisitarik, pakete bat ezin diogula eman... esaten digute. Hauei guztiei aurre egiten ohituta gaude, baina lehen aldiz joaten direnek askotan atzera egiten dute. Bisitaldiak egiten ohituta dagoen jendearen laguntza behar dute egoera horiei aurre egiteko.

Trasladuen berri ere, berandu izango duzue...

Behin baino gehiagotan gertatu zaigu, bera trasladatu eta guk oraindik lehengo lekuan zegoela uste izatea. Bere laguna den preso sozialen baten bidez izaten dugu trasladuaren berri. Honek bisita egin dionari trasladuaren berri ematen dio eta gurekin harremanetan jartzeko eskatu. Epaiketa izan zuten azkenean ere, bagenekien Madrilera eramango zutela, baina ez noiz. Malagatik Carabanchelera eraman zuten batean, deitu eta bagenuela bisitatzerik esan ziguten. Anaia-arrebak joan ginen eta biok bere abizen berekoak ginela ikusita ere ez ziguten berarekin egoten utzi familia libururik eraman ez genuelako. Bi trasladu mota daude: ezohikoetan zuzenean eramaten dituzte, baina ohikoetan bidean gartzela batetik bestera ibiltzen dira. Askotan astebete pasa dugu presoak non zeuden ez genekiela. Trasladuetan mila pezeta eramaten soilik uzten zaie eta astebete igaro behar dute diru horrekin, nahiz eta beraiek diru gehiago izan. Zelda zikinenetan sartzen dituzte eta diru horrekin ez dute garbigaiak erosteko adina ere...

Zertan ematen du eguna gartzelan?

Erraztasun handirik izan ez badu ere, ikasteari ekin dio. Nahiz eta euskaraz ikasten ari zen, azterketak erderaz jartzen zizkioten. Irakurri ere asko egiten du eta patiora irteten denean ariketak egiten ditu. Orain Euskadi irratia entzuten du gauez eta euskaraz hitz egiten entzutea berarentzat sekulakoa izan da. Bertso munduak jo duen aldaketarekin zeharo txunditurik agertu zitzaigun. Hala ere, euskal presoak ez daude desfasatuak, bisita, gutun eta prentsaren bidez hemengo berri baitute. Berandu bada ere, Gara, Otamotz bera eta gainerako euskal prentsa beti jasotzen du. Bestalde, presoek sekulako gutun piloa jasotzen dituzte eta azken hilabete hauetan denei erantzuteko aukera izan badute ere, orain berriro ere asteko lau gutun soilik erantzun ditzakete. Honekin komunikazioa etetea bilatzen dute, baina jendeak idazten jarraitzen die.

"Su etenarekin mesedeak baino gehiago zigorrak jasan zituzten presoek"

Etxekoei gauza guztien berri ematen al dizue?

Argi dago senideekin beraien bizi baldintzez hitz egitea zaila egiten zaiela. Jasaten dituzten egoera asko ez dizkigute kontatzen guri ez sufriarazteko. 14 urte pasa dira eta oraindik ez diogu entzun gaizki dagoela esaten. Hala ere, hizketan hasi ondoren, batzutan barruan duena ateratzen zaio. Malagako gartzela zaharrean isolamenduan egon zenean, inorekin hitz egiterik ez zuela eta irratiari erantzuten hasi zela esan zigun. Funtzionariekin ere ez zuen inolako harremanik. Beste behin ere triste zegoela somatu genion, aurreko gauean lotuta zegoen preso komun batek su hartu eta hil egin baitzen. Hau ezagutzera emanez gero zigortuko zituzten mehatxua jaso zuten arren, komunikatu bat atera zuten. Jakizu zer zigor ezarriko zieten...

Zerbait gehiago esan nahi baduzue...

Senideok ez ditugu presoak horrela ikusi nahi eta Euskal Herriko gizarte osoak zerbait egin behar du preso eta errefuxiatuak Euskal Herriratzeko, beharrezkoak baitira Euskal Herria berri bat eraikitzeko prozesuan. Sufrimendua orainarte guk bakarrik eraman dugu, baina gizarteak hau ulertu eta lan egin behar du. Ez da nahikoa presoak Euskal Herrian egotearekin ados gaudela esatea. Bestalde, hiru laurdenak bete ondoren kalean egon beharko liratekeen ehun presotik gora daude, tartean Pili Gabirondo bera. Esteban Nieto ere, minbiziak jota zegoela gartzelan usteltzen utzi zuten eta beraiek dira bere heriotzaren errudun bakarrak. Su etenak ere ez die inongo mesederik ekarri presoei, gure ustez, gartzelariak lasaitu egin ditu eta are eta gogorrago zigortzeari ekin diote. Aurreko urteetan Gabonetan pakete berezi bat bidaltzeko aukera genuen eta aurten hori ere ez... Su etenaren ondoren Espainiako gobernuak egin dituen ustezko hurbilketak ziri hutsa dira: ez dituzte presoak gerturatu, gartzelaz aldatu baizik, eta gerturatu dituzten bakanek zigorraren hiru laurdenak beteak dituzte eta jada kalean egon beharko lirateke.

Zumarragako jaietan presoak etxeratzearen alde egin zen enkartelada.

SANTA LUTZIAK 99

Oilasko eta kapoi lehiaketa

Kapoi lehiaketa

Euskal arrazako kapoiak

1. saria (30.000 pta.): Mari Carmen Uranga (Hernani).
2. saria (25.000 pta.): Xabier Goikoetxea (Albistur).

Arraza arrunteko kapoiak:

1. saria (30.000 pta.): Joxe Ugartemendia (Errezil).
2. saria (25.000 pta.): Juan Aranburu (Ezkio).

Oilasko lehiaketa

Euskal arrazako oilaskoak

1. saria (25.000 pta.): Iñaki Artetxe (Zamudio).
2. saria (20.000 pta.): Xabier Goikoetxea (Albistur)

Arraza arrunteko oilaskoak:

1. saria (23.000 pta.): Antonia Pildain (Urretxu).
2. saria (18.000 pta.): Juan Aranburu (Ezkio).

Urretxu-Zumarragako oilasko onenari saria: Antonia Pildain.

SANTA LUTZIAK 99

Barazki, fruta eta errezil sagar lehiaketak

Zumarraga

Barazki lehiaketa
1. saria (30.000 pta. eta garaikurra): J.M. Zabalegi (Martutene).
2. saria (23.000 pta.): Jesus Artola (Anoeta).
Eskualdeko lote onena: Antonia Murgiondo (Gabiria).

Fruta lehiaketa
1. saria (30.000 pta. eta garaikurra): Agustina Iradi (Hernani).
2. saria (23.000 pta.): Maria Etxezarreta (Gabiria).
Eskualdeko lote onena (20.000 pta.): Maria Etxezarreta.

Errezil sagar lehiaketa
1. saria (30.000 pta. eta garaikurra): M. C. Uranga (Hernani).
2. saria (23.000 pta.): Maria Etxezarreta (Gabiria).
3. saria (20.000 pta.): Maria Isabel Zumalakarregi (Gabiria).
4. saria (17.000 pta.): Pakea Galdos (Gabiria).
5. saria (15.000 pta.): Aitor Elosegi (Gabiria).
Eskualdeko lote onena: Maria Etxezarreta.

Barazki, fruta eta errezil sagarren artean lote onena:
J. M. Zabalegi (Martutene).

Urretxu

Barazki lehiaketa
1. saria (25.000 pta.): Jose Lonbide (Urretxu).
2. saria (20.000 pta.): Elena Niño (Irigon baserria).

Fruta lehiaketa
1. saria (25.000 pta.): M. Agirrezabala (Oñatibia txiki).
2. saria (20.000 pta:): Anttoni Murgiondo (Beko-Etxe).

Ezti lehiaketa
1. saria: Josetxo Urteaga (Beasain).
2. saria: Inaxio Guridi (Legazpi).
3. saria: Rufino Aranburu (Legazpi).

SANTA LUTZIAK 99

Abere lehiaketa

Haragitarako

Zaldirik onena (30.000 pta. eta trofeoa): Indart anaiak (Legasa).
Behorrik onena (30.000 pta. eta trofeoa): Indart anaiak (Legasa).
Urteko moxalik onena (25.000 pta. eta trofeoa): Indart anaiak (Legasa).

Pottoka (A atala)

Zaldirik onena (30.000 pta. eta trofeoa): Estibaliz Llodio (Aretxabaleta).
Behorrik onena (30.000 pta. eta trofeoa): Mikel Iraeta (Zaldibia).
Urteko moxalik onena (25.000 pta. eta trofeoa): Eduardo Garmendia (Zaldibia).

Pottoka (B atala)

Zaldirik onena (30.000 pta. eta trofeoa): Luis Mari Amiana (Ezkio-Itsaso).
Behorrik onena (30.000 pta. eta trofeoa): Joaquin Anso (Urnieta).
Urteko moxalik onena (25.000 pta. eta trofeoa): Antonio Lapuente (Zalduendo).

1999ko Santa Lutzitako Ferian parte hartu duten abereen eta salmenten kopurua

	Parte hartu	saldu
Zaldiak	9	0
Moxalak	292	79
Behorrak	51	7
Pottokak	22	0
Astoak	52	0
Mandoak	3	0
Ahuntzak	39	0
Poniak	18	4
Zaldikoak	33	14
Txekorrak	3	0
Idiak	2	0
Behiak	2	0
Guztira	526	104

Aitor etzak zintzo aurpegi hori jar, ez dituk gurasoak engainatuko eta! Zer nahi duk Olentzeroren opariaz gain urtebetetzean ere primerako oparia jaso? **Zorionak** eta ondo pasa!

Jesus, **Amaia!** Urteak bete dituzunetik zeharo emakumetu eta seriotu zarela dirudi! Segi oraindik ere bihurrikeriak egiten, horretarako adina duzu eta! **Zorionak!**

Javier, jendeak apaizak primeran bizi zaretela esateak harritzen al zaitu? Zu ikusita behintzat ez dago kontrakoa esaterik! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.

Jebi iaz ere esan genian ilea luzatzen uzten ez bahuen, izena aldatuko geniala! Kasu izpirik egin gabe jarraitzen baduk punkarra deitzen hasi beharko haugu! **Zorionak!**

Luis Mari, ondo dago noizean behin abestea, baina argi ibili katekistekin, egunen batean Galiako bardoaren moduan zuhaitzari lotuko zaituzte eta! **Zorionak!**

Maria Jesus, zeri begira ari zara burua makurtuta? Txanponen bat erori zaizu ala? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Mireia, kataluniarrak gure herria gustukoa duzuela eta izenak eraman nahian ere hasi al zarete? Ez diguzu zure izena kataluniarra den ziria sartuko! **Zorionak!**

Nagore, oraingoan ere beti bezain irrifartsu! Ea Urte Zahar gauean ere horren irrifartsu zerbitzatzen dituzun bezeroak! **Zorionak** eta ondo ibili!

Zorionak Osi eta Iste!
Ezkontza batera joan nahi dugu!

Pilar, neska, alaitu ezazu aurpegi hori, Paco Rabannek eta antzerakoek bestela dioten arren mundua ez da urte honen amaierarekin bukatzen eta! **Zorionak!**

Mikel eta **Iñigo**, zein baino zein bihurriago! Lehengusuak zaretenez batera jarri zaituztegu, baina badaezpada ere argazki ezberdinetan. Izan ere zuek biok elkarrekin egonda, ez legoke bake handirik! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna familiako guztien partetik!

Udane zure urtebetetze egunean ere ez al diozu ikasteari utzi behar? Har ezazu atseden pixka bat neska! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.

Bai, bai... jarri ezazue zuen irrifarrerik onena argazkian ateratzeko, nahiz eta buruko ederra hartu duzuen bata bestearen ondoan jarri nahian! Siamesak al zarete? Hala ere, bihurrikeriak bi izango bazinete bezala egiten dituzue! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna **David** eta **Jonatan.**

Aitor argazkian ere, irakasleari sarritan gertatzen zitzaion bezala, despistatu xamar harrapatu haugu! Adinean aurrera joan ahala aldatu zaren esperantza dugu. **Zorionak!**

Asun jakin al daiteke zer egin dizugun guri horrelako begirada zuzentzeko? Barkatu, emakumea... eta ondo pasa urtebetetze eguna. **Zorionak!**

Iban, anaiaren gainean jarri al zaituzte bera zain dezazun? Noiz edo noiz bere bidea jarraitu behar zenuke! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.

Zorionak Jokin familia eta batez ere anaia Unairen partez! Nahiz eta bihurri aurpegia jarri eta gaileta guztiak jan dizkiozun oraindik ere zu zoriontzeko adorea gelditzen zaio.

Olatz, argazkilariak piztu al du zugan tamaina horretako irrifarrea? Alaba ezkondu zaizula eta zuk ere mutil gazteren batekin joateko asmoa al duzu? **Zorionak!**

Iñigo, argazki guztien artean zurea azkena gelditu da, baina ziur parranda egiteko izango balitz lehenengoen artean egongo zinatekeela. **Zorionak!**

RENEDO argazkiak
Jaunartzeak ● Bataioak ● Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎ 725682 722292

MAPFRE
Aseguru etxea
S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

LASKURAIN
Emakumezko zein gizonezkoentzat arropa
Iparragirre ibilbidea, 10 ☎ 943 72 11 05
Legazpi, 8 ☎ 943 72 07 57
ZUMARRAGA

nextlingo
school of English
Bertsolari Txirrita, 16 Iparragirre, 8
20017 Altza 20700 Zumarraga
Donostia Gipuzkoa
Tel./Fax: 943 39 43 77 Tel./Fax: 943 72 65 60
nextlingo@hotmail.com

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Aurpegi anitzeko artista

Iker Alvarez eta bere musika taldeko lagunak aski ezagunak dira herrian. Oso gazte zirela, 15 urterekin, musika jotzen hasi ziren eta aurten Hot Dogseko lagunek lehen diska kaleratzea lortu dute. Zorioneko 2000 urte honetan beraien bigarren lana grabatu eta inguru hauetan oso ohikoa ez den musikaz gure belarriei astindua emango diete.

Halere, Ikerrek ez dio beste ezeri ere muzin egiten eta "artista polifazetikoa" dela esan daiteke. Andoainen ikusentzuneko ikasketak burutu zituen eta ondoren antzezpen klaseak ere jaso ditu. Zinemetara urrian heldu zen "Jone sube al cielo" pelikulan aktore lanetan parte hartu du eta "Libelulas" izeneko musika talde berrian ere hasi da. Honetaz guztiaz gain, GSBn ere lanean ari dela kontuan harturik, ez du ez aspertzeko astirik.

Nolatan parte hartu duzu "Jone sube al cielo" filmean?

Joseba Salegi zuzendaria nire irakaslea izana da eta bere lehen filmea den honetarako niretzat egokia izan zitekeen pertsonaia bat zegoela esanez deitu zidan. Kasting batera aurkezten nintzen lehen aldia zen, baina ez nengoen oso urduri; beharbada kastingetik kastingera urteak daramatzaten aktoreek urduriago jartzeko arrazoiak izango zituzten.

Zein izan da zure papera?

Nire pertsonaia gehienbat estatikoa da, hau da, askotan azaltzen da baina ez du gehiegitan hitz egiten. Bere izaera ere lotsatia denez... Sekula antzeztu gabea nintzen eta goiz batean gainontzeko aktoreekin entsaiatzeko deitu zidaten: Kike Díaz de Rada, Klara Badiola, Martxelo Rubio... Testuak soilik entsaiatu eta handik gutxira jada lehen planua grabatzea, zailena zena, egokitu zitzaidan: Anabel Arraizari muxu bat eman behar nion. Eskerrak ez neraman jaka jantzita, bestela botako nuen izerdia sekulakoa izango zen... Gainera, denok ere tentsio handi xamarra geneukan; kontuan izan behar da pelikulak 150 milioitik gorako aurrekontua zuela.

Zure lanarekin gustura gelditu al zara?

Pelikulan antzeztearena erronka moduan hartu nuen, nire buruari halako gauza bat egiteko gai nintzela erakutsi nahi nion eta lortu dut. Gainontzeko filmeetan bezala, errodaia oso gogorra izan zen: 22 egunetan joan behar izan nuen eta egun bakoitzean 10 ordu inguru ematen genituen bertan. Pelikula oso korala da, 30 pertsonaiatik gora ditu, eta askotan azaltzen naizen arren, ez zidaten batere zuzendu. Lehenengo aldia denez, nahiagoko nuke nire lana gehiago zuzendu izan balute, honela zertan huts egiten nuen jakiteko aukera izango bainukeen.



Filmearen estreinaldian izan al zinen?

Bai, izan nintzen. Ez dut gehiegi atsegin eta ez zait zuzena iruditzen kontrakoa esatea. Dena den, hau gustu kontua da eta nik, adibidez, filmearen umore mota ez dut gehiegi atsegin. Esan bezala, filmean pertsonaia ugari gaude eta grabaketan geundela zenbaitetan ez nekien zati horretan egiten ari nintzenaren arrazoia. Hala ere, zine mundua asko atsegin dut eta filme batetan parte hartzea oso esperientzia polita izan da. Bertako giroa oso ona izan da eta jende oso jatorra ezagutzeko aukera eman dit. Zenbaitetan esan ohi da zine munduan zain egoteagatik ordaintzen dela eta egia da. Heldu eta berehala makiladore eta ileapaintzaileek euren lana egin eta ondoren antzezteko orduaren zain gelditzen gara. Honek gainontzeko jendearekin harremanak egtieko aukera ematen du. Oso gauza kuriosoa da, harreman sakonak egiten baitira hain denbora luzez elkarrekin egonez, baina errodaia amaitu ondoren ez gara berriro elkar ikusten.

Zinema munduan lan egiten jarraitzeko asmoa al duzu?

Antzezle lanetan oso gustura aritu naiz eta etorkizunean ere oso gustura arituko nintzateke, beharbada ikastaroren batera ere joango naiz. Halere, zinema mundutik gehien erakartzen nauena zuzendaritza lana da. Ikasten ari nintzela laburmetraia bat egin genuen 8mm.tan eta nik montaturiko beste

batek sari bat jaso zuen Mallorcan. Beraz, norbaitek istorio onen bat badu, badaki norengana jo dezakeen. Baina zinema munduan proiektu bat aurrera ateratzea oso garestia denez, momentuz zinearekin erlazioa duen beste edozein lanetan aritzeko prest nago. Honek esperientzia ematen du, mundu hau barrutik ezagutu eta kontaktuak egiteko aukera.

Zer zine mota atsegin duzu?

Gaur egun Euskal Herrian zein estatu mailan egiten den zinea ez dut gehiegi atsegin. Gehienbat duela hamarkada batzuk egiten zen zinea dut gustuko, "Kultukoa" deitzen dena, nahiz eta niri izen hau ez zaidan batere gustatzen. "Nouvelle Vague", Errusian egiten zena... atsegin ditut. EE.BB.etako zine klasikoa ere, orain egiten den gehiena baino gustukoagoa dut. Filme hauek guztiak ikusteko aukera gutxi daude, are gutxiago jatorrizko bertsioan. Donostiako Zinemaldia izaten da urtean zehar dudan aukera eskasetako bat eta primeran pasatzen dut bertan.

"Taldeari benetako saltua emateko garaia heldu zaiola uste dugu"

Hala ere, zinea ez da zure kultur zaletasun bakarra. Musika talde berri batean ari zarela ere jakin dugu...

Bai, "Libelulas" izeneko talde bat sortu dut beste lagun batekin eta bertan kitarra jotzeaz gain, abestu ere egiten dut. Hot Dogs taldean dudan paperarekin alderatuz oso ezberdina dela esan behar da, bertan baxua jotzen baitut. Talde honetan erritmo kaxak ere sartzen ditugu eta beraz, beste esperientzia bat da. Astean behin entsaiatzen dut talde bakoitzarekin eta lantegiko lanarekin ere nahiko lanpetuta nabil, baina ez dut gauza bakar batean aritzea atsegin, aspertu egiten bainaiz.

Hot Dogs taldeari dagokionez, zer nolako erantzuna jaso du lehen diskak?

Erantzun ona jaso duela uste dugu, lehen tiradako diska guztiak saldu ziren eta disketxeak beste bat kaleratu behar izan zuen. Honetaz gain kritika onak ere jaso ditugu eta EE.BB.etako musika aldizkari ezagun batek urteko diska izendatu zuen. Honetaz gain, estatuko leku ezberdinetan kontzertuak eskaini ditugu eta berauetara hurbildu zen jendeak gure abestiak eta taldekoon izenak ere ezagutzen zituen.

Diska berria prestatzeari ekin al diozue?

Bai, abestiak jada prestatuak ditugu eta otsailean hasiko gara grabatzen lehenengo diska atera zuen disketxe berarekin. Nire ustez bigarren diska honetarako prestatu ditugun abestiak landuagoak dira eta pianoa eta beste instrumenturen bat ere sartu nahi dugu. Gure nahia eta disketxeari zuzendu diogun eskaera ekoizpena egiteko kanpoko teknikari on bat ekarri eta promozio indartsuagoa egitea da. Egia esan, gaur egun gero eta zailagoa da zerbait deigarria egitea. Lehia handia dago, talde guztiak onak direla segurutzat jotzen da eta zerbait berria egitea edo atentzioa deitzea ia ezinezkoa da, telebistaren edukia dela eta, jendeak astakeriarik handiena ere jada normaltzat hartzen du.

Bestalde, zuen musika dela eta, merkatu zabal eta barreiatua duzue eta beraz promozio indartsuagoa ere behar duzue...

Hori hala da, gure merkatua euskaraz abesten duten talde gehienena baino askoz zabalagoa da, mundu mailakoa izan daitekeela esan daiteke. Hain merkatu zabalera heltzeko disketxearen bultzada handia eta diru asko behar da. Gure entzule potentzialak asko dira, baina oso sakabanatuak daude, hori dela eta disketxeari promozio aldetik bultzada eskatu diogu eta gu gainontzeko guztia eskaintzeko prest gaude. Geure kontzertuetan dena ematen dugu eta ez zaigu axola furgoneta hartu eta etxetik kanpo denbora asko pasatzea. Gainera, musika munduan urte asko daramagu eta benetako aurrerapausua emateko garaia ere badela uste dugu, bestela azkenean nazkatu egingo baikara.

Etxetik kanpo estimazio handiagoa izateak ez al du amorrurik sortzen?

Gazteagoak ginenean hau kritikatzeko joera genuen, baina azken finean merkatuaren kontua da. Taldea sortu genuenean bagenekien zer zegoen eta gure musika talde konkretu batzuen gustukoa da. Euskal Herriko merkatua txikia denez, gure musika gustuko duen taldea ere txikia da. Gure musika ez dago euskal merkatura zuzendurik eta beraz, normala da merkatu honetan arrakasta handia ez izatea.

CHIARA
Etxerako lentzeria
Oparitarako gaiak
Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
20700 URRETXU

ZAPATAK

0tik 40 zenbakiraino
Eliz-Kale, 7 Tel: 943 72 54 39
ZUMARRAGA

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 31 ☎943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak
Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga
Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu
Kale nagusia,5
☎ 73 04 19
Legazpi
*ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU

OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA
S. Esnaola, 26 ☎943720306
ZUMARRAGA

Urretxuko Argiñano

Baliteke zuetako askok, gure antzera, sukaldari urretxuar batek Madrilen duen arrakastaren berri ez izatea. Iñigo Pérez du izena eta Martin Berasategirekin ikasten aritu ondoren, Madrileko El Amparo jatetxe ospetsuan lanean ari da, bertako sukaldari-buru delarik. Horretaz gain, Via Digitalgo Canal Cocinan zein Telemadriden sukaldaritza saioak aurkezten ditu, hori dela eta Madril inguruan sona handiko gizona da. Pertsona irekia eta alaia, berarekin harremanetan jarri ginenean sekulako poza erakutsi zuen, bere burua urretxuar-urretxuarra sentitzen baitu. Hala ere, Madrilen lortu du benetako arrakasta eta, sukaldaria izanik, ziur urte berri honetarako espero duen haurrak besazpian ekarriko duen ogiari probetxu ateratzen jakingo duela!

Sukaldaritzan daramatzazun urteen laburpen txiki bat egiguzu.

Orainarte lau jatetxetan aritu naiz lanean: Martin Berasategiren Bodegon Alejandron, Frantziako Le Pain Adour et Fantasien, Orioko Obian eta Madrilgo El Amparon. Orain estatuko hamar hoberen artean dagoen azken honetako sukalde burua naiz. Beraz, erretegi batean, gero nire ustez onena den eta lagun ona dudan Martin Berasategirekin izan nintzen eta azkenik, mundu guztian onespen handia duen sukaldaritza frantziarra lantzeko aukera izan dut. Ahal dudana ikasten saiatzen naiz, gero bezeroek eskatutakoari ondo erantzuteko.

Familiatik al datorkizu zaletasuna?

Nire ustez zaletasuna amarengandik datorkit. Irakaslea izan den arren, oso sukaldari ona da eta sukaldaritza tradizionala oso ondo lantzen du. Bestalde nire aita eta osaba "Paquito" Urtubi elkartean aritzen dira eta osabak elkarteen arteko lehiaketa asko irabazi ditu. Euskaldun gehienok bezala sukaldaritza odolean daramat eta nire zaletasunaz gain ogibide ere bihurtu da.



Non ikasi zenuen?

Osaba Jose Ignacioren eskutik Donostiako eskolara joan nintzen, baina oso leku gutxi zeudenez ez ninduten hartu eta ez dut ikasketarik. Hori dela eta duela hamabi urte Martin Berasategirekin hasi nintzen, nire ustez berea da eskolarik onena. Martin oso gogorra da, irakasle on guztiak bezala, baina sukaldari izateaz gain, pertsona izaten ere erakusten du. Oraindik ere neure burua, garai hartan bezala, mutiko trebatu gabe eta baldar ikusten dut eta jendeak prestatu dudana oso ona dagoela esaten didanean, oraindik ere nik neuk edo besteren batek prestatu duen begiratzen dut... ja, ja.

Nolatan erabaki zenuen Euskal Herritik ateratzea?

Euskal Herrtik ateratzea oso erabaki gogorra izan zen, baina El Amparok eskaintza egin zidanean, aitak sekula ahaztuko ez zaidana esan zidan: "El buey no es de donde nace, sino de donde pace". Ezin nuen ikasi eta lanbidean aurrera egiteko aukera hura galdu. Dena den, ilobek "Madrilgo osaba" deitzen didatenean min egiten dit eta nik Madrilen bizi arren Urretxukoa naizela esaten diet. Gainera, madrildarrei eta ez euskaldunei dirua kentzeko modu aparta da... ja, ja.

Madrilgo komunikabide ezberdinetan ere lan egiten duzu...

Duela bi urte edo hasi nintzen telebistan lanean eta ordutik hona lan dexente egin dut. Egun Via Digitalen sukaldaritza saio bat dut eta lehenago gozogintza soilik lantzen zuen bat ere aurkeztu nuen. Telemadriden ere egunero ateratzen naiz eta duela gutxi Mayra Gómez Kempekin ere aritu naiz Antena 3n. Irratian eta egunkarietan ere aritu naiz. Aurkezle lanetan oso gustura nabil, oso jende jatorrarekin lan egiteaz gain, ez baitut sekula pentsatzen kamera aurrean nagoenik, lagunekin sukaldaritzaz hitz egiten baizik.

Argiñanoren pareko aurkezlea al zara?

Karlos Argiñano sekulako profesional ona da sukaldean zein telebistan eta sukaldarion lana onestea lortu du. Sarritan konparatu naute berarekin, nahiko xaloa izateaz gain, nik ere txisteak kontatzen baititut. Komunikabideren batetan Argiñano II ere deitu didate, baina ez da hala. Nik egiten dudan bakarra etxekoandreengan pentsatuz kozinatzea da, beraiek duten tresnekin eta etxean bezala. Zerbait

"Martin Berasategi dut sukaldaririk gustukoena".

Iñigo, eskubitik bigarrena, Mayra Gómez Kempen saioan lana egiten zuenean.

lurrera erortzen bazait, ez dut grabaketa mozten eta etxean egingo nukeen bezala jarraitzen dut. Jendeak oso naturala naizela dio eta kalean ikusten nautenean telebistan bezalakoa naizela diote. Ni ez naiz aktorea, sukaldaria baizik.

"Madrilen Urretxu ezizenez ezagutzen nau mundu guztiak".

Zein da zure sukaldaririk gustukoena?

Martin Berasategi, ezpairik gabe. Sukaldari eta maixu paregabea izateaz gain, azkarrena baita. Meritu izugarria du egiten ari denak: Kursaal eta Guggenheimgo jatetxeak aurrera atera, Lasarteko jatetxea, Oiartzungoa... Horiek guztiak aurrera ateratzeko oso talde ona antolatu du eta gainera ez da batere berekoia eta dakien guztia erakusten saiatzen da. Frantzian Alain Ducassek antzeko muntaia du eta gustukoa dut, baina Martin Frantzian lanean hasten denean, gizarajoa Martinentzat lanean ikusten dut.

Pertsonaia ezagunei bazkaria prestatu beharra suertatuko zitzaizun behin baino gehiagotan...

Ia egunero aktoreak, modeloak, futbolariak... etortzen dira. Gustuen hartu dudan telebista aurkezlea Andoni Aizpuru da, Madrilera etortzen denean beti bisitatxoren bat egiten dit eta lagunak etortzea asko eskertzen dut. Behin institutuan klase eman zidan Maritxu Ugalde zientzietako irakaslea ere etorri zen eta ilusio handia egin zidan, nahiz eta beti suspenditzen ninduen arren, oso pertsona ona baita. Pertsonaia oso ospetsuei dagokionez, Claudia Schiffer, Michael Douglas, Ramón García... gurean bazkaltzen izan dira. Baita Real Madrileko jokalari gehienak aipatu ezin diren unean-uneko neskalagunekin ere. Errealekoa naizenez, hauek pozoitzeko gogoa sartzen zait, baina tira... ja, ja.

Euskalduna izateak ateak zabaltzen al ditu sukaldaritza munduan?

Euskalduna izateak normalean ate asko zabaltzen ditu ogibide guztietan, jendeak euskalduna zarela jakin bezain pronto soldadutzako bere lagunik onena ere euskalduna zela esaten baitizu... ja, ja. Hala ere, gero norberaren balioa erakutsi beharra dago. Sukaldaritzan euskaldunok oso maila altua dugunez, gazteok erantzunkizun handia dugu.

Madrilen Urretxuko enbaxadore sentitzen al zara?

Bai, noski, herritik atera nintzenetik mundu guztiak "Urretxu" ezizenez ezagutzen bainau. Txantxetan Iparragirre kendu eta ni jarri behar nautela esaten didate, berari sekula ez baitzioten bere herriaren izenaz deitu. Nire emaztea madrildarra da eta berak ere beti Urretxu deitu dit. Ezkondu baino lehen apaizak nire izenaz deitzen bazidan, ez zuela baiezkoa emango esan zidan. Edozein tokitan egonda ere, urretxuarra naizela argi uzten dut.

Noizbait pentsatu al duzu herrira lanera itzultzea?

Baina... zer uste duzue ba egiten dudala Urretxun nagoenean! Gurasoen etxean edo elkartean dela, beti bazkaria prestatzea suertatzen zait! Hala ere, primerakoa da etxera bueltatzea.

Iñigo Pérezek Otamotzeko irakurleei gomendaturiko bi postre:

Txokolate otartxoa gazta berridun kremarekin.

Osagaiak:

- 300 gr. txokolate
- 25 gr. gurin
- Fruitu gorriak
- 250 gr. gazta berri
- 100 zl. esnegain likido

Maria bainuan txokolate eta gurina urtu. Hau pixka bat hozten den bitartean molde baten kanpoko aldea plastikozko paperarekin forratu. Ondoren, moldea txokolatetan sartu txokolatea moldeari itsatsita geldi dadin. Dena hozkailuan sartu.

Moldea hoztu bitartean, esnegaina eta gazta nahastu (nahi izanez gero, azukre pixka bat gehitu dakioke). Behin hoztutakoan plastikozko paperarekin batera moldea txokolatetik bereiztu eta honek utzitako zuloa fruitu gorriekin eta gazta kremarekin bete.

Bukatzeko, menta hosto eta txokolate saltsa hari batzuekin platera apaindu.

Txokolate moussea karamelotutako platanoarekin.

Osagaiak:

- Mehe ebakitako txokolatezko bizkotxoa.
- 100gr. txokolate
- 50gr. gurin
- 200gr. harrotutako esnegain
- Nescafé koilarakada bat
- 3 arrautza
- 3 koilarakada Cognac
- 100gr. gurin
- 25gr. azukre
- 1/2 kgr. ondo heldutako platano.

Moussea zerbitu behar den moldeen barrenean bizkotxoa jarri. Ondoren, 100 gr. gurin urtzen jarri eta azukrea gehitu. Kolore pixka bat hartzen hasten denean, platanoa bota xerretan moztuta eta 15 minutuz egiten eduki. Ondoren, pixka bat epeltzen utzi eta bizkotxoaren gainean ipini. Hurrengo pausua txokolatea Maria bainuan urtu eta gainontzeko gurinarekin nahastea da. Epeldutakoan, nescafea, Cognaca, irabiatutako gorringoak eta harrotutako esnegaina bota. Dena kontu handiarekin nahastu eta elur punturaino irabiatutako zuringoak gehitu. Hau dena platano gainean jarri eta hozkailuan gorde.

Urolaren lehena eta oraina

Duela hilabete inguru Iñaki Aranzadik, Urola Futbol Taldeko jokalariak, 349. partidua jokatu zuen talde nagusian eta Matías Sanchezek zuen errekorra hautsi zuen. Futbol ez profesionalean sakrifizio handia eta etekin ekonomikorik ia ez dagoenez, errekor honek balio berezia duela esan dezakegu. Hainbeste urtetan Urolan jokatzeak futbola eta taldearekiko benetako abegikotasuna erakusten du gero!

Honetaz gain, Matiasek taldea utzi eta Iñaki lehen taldera iritsi arte hiru urte soilik pasa zirenez, bien artean Urolaren sorreratik gaur egundainoko denboraldi ia guztien berri eman dezakete.

Zein izan da zuen ibilbidea Urolan?

Matías: Ni Urolaren sorrerarekin batera hasi nintzen eta 84 denboraldia arte jokatu nuen. Hala ere, garai hartan denboraldi batetik bestera taldeak bazterketak egiten zituen eta 78an niri egokitu zitzaidan taldetik kanpo gelditzea. Nik maila onean nengoela uste nuen arren, urtebete jokatu gabe egon eta ondoren taldera bueltatu nintzen 84a arte. Zelai erdiko ia postu guztietan jokatu nuen, nahi ezkerraldetik nahi eskuinaldetik, eta zenbat gol sartu nituen gogoratzen ez naizen arren, urte batean 30 gol egin nituen.

Iñaki: Ni lehen taldera 87-88 denboraldian iritsi nintzen eta beraz, hamabi denboraldi bete ditut jada. Goleatzailea ez naizen arren, urtero 7 gol inguru sartzen ditut, baina kontuan izan behar da penaltiak, faltak eta kornerrak nik ateratzen ditudala. Hala ere, urte batean goleatzaile nagusia izan nintzen 11 gol sartuta. Matiasek ez bezala, nik eskuin hanka soilik erabiltzen dut eta beraz, eskuinaldean jokatzen dut. Zelaiaren ezkerraldean nagoenean ere eskuin hankaz ematen diot, kanpoko aldearekin.

M. S.: Hori egia da, bai, "Mustik" noizbait errieta ere egin dizu eskuin hankaren kanpoko aldearekin hainbestetan jotzeagatik.

Asko aldatu al da futbola urte hauetan guztietan?

M. S.: Nire ustez futbola ez da hainbeste aldatu, azken finean jokoaren funtsa bera da. Hala ere, gure garaian luzean gehiago jokatzen genuela uste dut. Telebistan ematen dituzten partiduetan gure garaian bezala jokatzen hasten direnean partidua erotu egin dela diote.

I. A.: Horren arrazoia zelaien aldaketa izan daiteke. Lehen belarrezkoak ziren eta askotan lokaztuta egoten ziren edo egoera txarrean. Hau dela eta, motzean jokatzea arriskutsua izan zitekeen eta luzean jokatzea komenigarriagoa zen. Baloia mugitzea zailagoa zen eta indarrak orain baino garrantzi handiagoa zuen.

M. S.: Hala ere, nire ustez gaur egun ere luzean gehiago jokatu behar zenukete, toke labur gehiegi egiten dira.

I. A.: Honen arrazoia taktikoa ere izan daiteke. Gaur egun taktikari askoz ere garrantzi handiagoa ematen zaio eta prestakuntza ere ezberdina da. Entrenatzaileaz gain, bigarren entrenatzailea, prestatzaile fisiko titulatua, masaialari titulatua... ditugu.

Izan al zenuten inoiz beste talde batera joateko eskaintzarik?

I. A.: 18 urte nituela Sanserekin entrenatzen aritu nintzen eta beranduago denboraldi batean Beasainekin hasi nintzen. Baina bertan bi hilabete igaro ondoren Urolara itzultzea erabaki nuen. Urolan genuen giroa nahiago nuen eta uste dut taldera itzultzean bete-betean asmatu nuela. Beranduago Lagun Onak eta beste talderen baten eskaintza ere jaso dut, baina lanetik itzuli ondoren herritik kanpo entrenatzea oso gogorra izango litzateke.

M. S.: Talderen baten edo besteren eskaintza izan nuen nire garaian, hauen artean Ilintxarena. Baina orduan Ilintxarekin lehia handia genuen eta etsaiarengana jotzea bezala izango litzateke... Ez nuen sekula Urolatik kanpo jokatzea pentsatu.

Matías: "73an preferentera igo ginenean herri osoa kalera atera zen"

Urte hauetan guztietan zeintzuk izan dira zuen

oroitzapenik on eta txarrenak?

M. S.: Oroitzapen onak asko dira. 73an preferente mailara igotzea lortu genuen eta herrian egin zitzaigun ongietorria izugarria izan zen. Autobusean heldu ginen eta Errealak lehen liga irabazi ondoren bezala, Zumarraga eta Urretxuko herriak kalera atera ziren. Beste oroitzapen zoragarri bat omenaldia egin zidatenekoa da, momentu hartan zaletuek eskaini zidatena ez dago diruz ordaintzerik eta honek nahigabe guztiak ahaztarazten ditu. Otamotzi uzteko argazki zaharrak bilatzen ari nintzela omenaldirako lagun batek idatzitako poema batzuk ere aurkitu ditut... Oroitzapen txar bakarra, taldetik kanpo utzi ninduteneko hura da.

I. A.: Jokaturiko partiduen errekorra dela eta egin didaten omenaldia ere izugarria izan da niretzat. Bestalde, 3. mailara igotzea lortu genuenekoa ere oroitzapen bikaina da. Urte hartan Argixao jendez gainezka egoten zen partidu guztietan eta giroa izugarria izaten zen. Jendearen aldetik sekulako bultzada jaso genuen eta kanpoan jokatzen genituen partiduetara ere herritar ugari joaten zen. Bi herriotako gazteez osaturiko jokalari talde gazte bat ginen eta sekulakoa lortu genuen. Urte batean, gainera, 3. mailan 7. postuan gelditu ginen eta honenbestez Gipuzkoako 6. talde onena izan ginen.

M. S.: Gure garaian herritik kanpoko jokalari gehiago zeuden taldean, baina azkenean herritarrok izaten ginen taldean giro ona sortu eta taldea aurrera ateratzen genuenak. Zuen belaunaldia beharbada Urolatik pasa den onena izan da, baina esan beharra dago gure garaian preferente maila gogorragoa zela.

Zein duzue Urola taldean ikusi duzuen jokalaririk gustukoena?

I. A.: Nire belaunaldiko asko esan ditzaket, baina bereziki "Bixio" Aranburu. Zelaian erakusten zuen adimen eta trebetasunak Laudrup gogorarazten zidan eta niretzat maixu bat izan da. Nahiz eta bere nahia hori ez izan, taldeko buru bihurtu, taldea bere gain hartu eta aurrera ateratzeko gai zen.

M. S.: Nire garaiko jokalarietatik gustukoena Aldama dut eta zuen belaunaldikoa, aldiz, zu zeu. "Bixio" oso jokalari ona izan da, baina baita irregular xamarra ere. Zuk, ordea, urte pilo bat daramatzazu taldean eta urtero-urtero erregulartasun handiz. Gainera, zure adineko askok utzi egin dute eta zu arduratu zara aldagelan gazteei erakusteaz eta behar bezalako giroa sortzeaz.

Iñaki Aranzadi: "Egunen batean Urola entrenatu nahi nuke"



Matías, zer iruditu zaizu Iñakik zure errekorra haustea?

M. S.: Ez nekien errekorra nuenik, eta Iñakik errekorra hautsi behar zuela esan zidatenean lesionatzea pentsatu nuen... Ez, asko pozten naiz errekorra Iñakik hautsi izanaz, nahiz eta bera gehiago poztuko zen...

I.A.: Errekorra hautsi behar nuela esan zidatenean, ea ordura arte noren esku zegoen galdetu nuen eta Matiasek zuela esan zidatenean normaltzat jo nuen. Niretzat oso garrantzitsua da Matiasen pare jartzea, Urolan instituzio bat baita. Oraindik delegatu lanetan aritzeaz gain, berak ere gazteekin entrenatzen duela ikustea besterik ez dago.

Iñaki, urte askotan jarraitu eta gainditu ezineko errekorra ezartzeko asmorik al duzu?

I. A.: Azken bi urteotan utzi egin behar dudala esan dut eta denboraldia hasi orduko jada entrenatzen ikusi dut neure burua. Hau dela eta, ez dut gehiago datarik jarri behar.

M. S.: Nire ustez urte pare bat gehiago jarraitu beharko zenuke, gazteekin oraindik lan garrantzitsua egin baitezakezu. Beraz, bi urterako kontratua egingo dizugu beste talde batek eraman ez zaitzan... ja, ja.

Jokatzeari utzi ondoren, Urolan lan egiteko asmoa al duzu?

I. A.: Bai, futbol entrenatzaile titulua ateratzen ari naiz eta lehenago ere gazteak entrenatzen aritua naiz. Entrenatzaile lana atsegin dut eta egunen batean Urolako lehen taldea entrenatu nahi nuke.

M. S.: Nik uste Urolako presidente karguan amaituko duzula... Nik ere ez dut futbola utzi, nahiz eta emaztea futbol kontu honetaz nahiko nazkatua dagoen jada. Sekula ez du futbola gustuko izan eta ni ikustera joan zen batetan baloikada batez soinekoa zikindu ziotenetik gutxiago oraindik...

I. A.: Nik alde horretatik ez dut arazorik, nire neskalagunak ere futbolean aritu baitzen. Duela urte batzuk, gainera, taldekideok afaria egiten genuenean neskalagunek ere euren afaria egiten zuten.

M. S.: Gure garaian kanpoko partiduetara autobusean gurekin joaten ziren eta herrira itzultzean zenbait bikotek elkarrekin meriendatzen genuen. Oso giro ona egon da Urolan beti.

Hainbeste urtetan futbolean aritu ondoren, pasadizu ugari izango dituzue...

I. A.: Bidaian geundela autobusa askotan izorratu zaigu eta taxia behin baino gehiagotan hartu behar izan dugu.

M. S.: Guri behin Pasaiara gindoazela Ertzainek gelditu gintuzten. Futbol partidu batera gindoazela esan genienean zelairaino eskoltatu gintuzten eta bertan Gurrutxagari salaketa jarri zioten. Honetaz gain, garai batean Irun aldera joateko Donostia erdialdetik pasa beharra zegoen eta presa genuenean Gurrutxagak semaforo guztiak gorri zeudela pasatzen zituen.

I. A.: Gurrutxaga Urolaren txofer ofiziala izan dela argi dago...

Aitor Gago

Urretxuar peto-peto honek ikastolan ikasi eta batxilergoa egin ondoren Donostiako "Fundación Matia"n hasi zen lanean klinika-laguntzaile lanetan. Gero Urretxuko Eguneko Zentrura pasa eta bertan ari da lanean gaur egun. Txikitatik pilotan aritua da eta honengatik da ezaguna herrian batez ere. Lauzpabost urtetan, gainera, Urretxuko taldearekin Herrien Arteko Pilota Txapelketan parte hartzeko ohorea izan zuen eta herritar askok oraindik frontoian erakusten zuen kasta gogoratzen du. Urte eta erdiz Florida tabernan lanean aritu bazen ere, barraren beste aldean egotea nahiago omen du.

-Zer izan nahi zenuen umetan?
Futbolaria.
-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?
Lagunekin egotea, musean jokatzea eta parranda egitea.
-Bizitzeko toki bat?
Urretxu bezalako tokirik ez dago munduan.
-Bakarka ala binaka jokatzea nahiago?
Bakarka gusturago ibili naiz beti.
-Gustuko pilotaria?
Julian Retegi, eta momentu honetan Patxi Eugi.
-Julian Retegi ala Mikel Goñi?
Julian Retegi, noski.
-Zein atzelarirekin gustatuko litzaizuke jokatzea?
Belokirekin, luzitu ahal izateko.
-Eta zeinen aurka?
Titinen aurka, lehia ederra izango genuke.
-Nor da pelotariagoa Jabi Erostarbe ala zu?
Momentu honetan Jabi, baina berak adina entrenatuko banu...
-Ederrena ala Beloki?
Ederrena zaharra urte askotan nire bigarren etxea izan zen. Orain, ez Urretxukoa, ezta Zumarragakoa ere ez ditut atsegin.
-Kamarero ala bezero nahiago?
Bezeroa, noski. Kamarero lana oso gogorra da.
-Ligatzea ala ligatua izatea?
Ligatua izatea nahiago dut, ez baitakit ligatzen.
-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?
Inor ez bereziki.
-Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?
Nire koadrilako "Letxu" eta Agirrerekin.
-Ilehoriak ala beltzaranak?
Denak, ilegorriak ere bai.
-Egindako azken oparia?
Nire lau lankideei belarritako pare bana oparitu nizkien.
-Eta jasotakoa?
Lankideek oparitu zidaten zapatila parea.
-Data bat?
Nire jaioteguna: 1973ko uztailaren 18a.
-Neska izen bat?
Nire amarena, Juani. Egia esan euren izenak baino gehiago, neskak berak atsegin ditut.
-Zein egunkari irakurtzen duzu?
Marca eta El Diario Vasco.
-Gustuko telebista saioa?
Kirol saio guztiak.
-Bereziki gorroto duzuna?
Maria Teresa Camposena.
-Liburu bat.
Ez dut irakurtzen.
-Filme bat.
Akziodun filme guztiak.
-Abesti bat.
"Xalbadorren heriotza".
-Soinu bat.
Trikitixarena.
-Usain bat.
Kolonia eta antzekoena ez behintzat.
-Ukitzeko...
Giza azala.
-Janari bat.
Txuleta on eta handi bat.
-Ura ala...
Ardo beltz ona.

URRETXU
OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA
Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea
Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

PUBLIZITATEA
☎ 943 72 57 75

URRETXU ZUMARRAGA IKASTOLA

Gabonak hurbil ditugu eta
horra hor desio ona
urte berriak ekar dezala
guztiontzat zoriona.

URRETXU-ZUMARRAGA IKASTOLA

ONDO PASA GABONAK ETA URTE BERRI ON!

URRETXUKO GIROA

URRETXUKO ALDAPA

AVENIDA - BUHAME - EZKURRA
FLORIDA - GAU-MOTZ - GOIKO KALE - LAKET
NAVARRO - OSABA - THE INTREPID FOX